

EUSKALTZAINDIAREN
II. EUSKALEGUNEN 75.URTEURRENA

Doneztebe, 1998-IX-25/26

PRENTSAURREKOA

Iruñea, 1998-IX-17

*Andres Iñigo,
Nafarroako ordezkaria*

Euskaltzaindiak, sortu ondotik, hartu zuen lehenengo erabakietakoa, bi urtetik behin Euskalegunak ospatzekoa izan zen, gaur egun Biltzar edo Kongresuak deituko genituzkeenak. Euskararen beherakada nabaritzen hasi zen hainbat leku edo lurraldetan, hizkuntzari eustea, indartzea eta bere erabilera hedatzea zen Euskalegunen helburua.

Lehenbizikoak Durangon izan ziren 1921ean eta bigarrenak Donezteben 1923an. Aurten bete dira, bada, 75 urte Euskaltzaindiak II. Euskalegunak Donezteben antolatatu zituenetik.

Euskaltzaindiak, ohi duen bezala, hainbat urteurren, mendeurren, eta abar aprobetxatzen ditu bere ekintza akademikoak egiteko eta bere batzorde eta lan taldeen jardunaldiak ospatzeko. Aldi berean, ekintza eta jardunaldiak eskualde ezberdinetan egiteko.

Iaz, adibidez, Aita Polikarporen mendeurrena zela-eta, Iraizotzen egin zituen bere X. Barne jardunaldiak, eta egoki iruditu zitzaion aurten 75. urteurren hau aprobetxatuz, berriro ere, Nafarroan eratzea bere ekintza akademikoak.

Erran beharra dago, orain dela 75 urte Doneztebek Euskaltzaindiaren proposamena gogo eta asmo onez hartu zuen bezalaxe, oraingoan ere esku zabalik hartu gaituela, erraztasun osoak emanez bi egun iraunen duten ekitaldi hauek antolatzeko.

Aurrean duzuen egitarauan ikusten ahal duzueenez, hilabete honen 25 eta 26an izanen dira ospakizun eta jardunaldiak:

Irailaren 25a.

— Goizean:

Euskaltzain osoen iraileko bilkura.

— Arratsaldean:

Jagon saileko III. Topaketak eginen dira, Miren Azkarate sailburuaren txostenarekin eta IV. Ahoskera jardunaldiei hasiera emanen zaie.

Arratsaldeko 8etan izanen da 75. urteurrena ospatzeko eginen den ekitaldi publikoa. Miguel San Miguel Doneztebeko alkate jauna eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuarekin batera, parte hartuko dugun hiru hizlariak Maria Jesus Perurena, Periko Mindegia eta neu izenen gara. Doneztebeko txistu bandak eta *Mendi* abesbatzak bere doinu eta abestiak tartekatuko dituzte. Ekitaldiari amaiera emateko, zinema aretoaren ondoan dagoen *Bear-zana* pilotalekuan Doneztebeko dantzariak *Trapatan*, bertako dantza bitxia, eskeiniko digute.

Irailaren 26a.

IV. Ahoskera jardunaldiak egun osoan zehar. Miren Lourdes Oñederra batzordeburuak berehalaxe emanen dizue eginen dutenaren berri.

Eta eguerdiko ordu batean, ekitaldi akademikoei aisialditxo bat amateko, *Bear-zana* pilotalekuan Doneztebeko A eta B ekipoek *Laxoa* partida jokatuco dute.

EUSKALTZAINDIAREN II. EUSKALEGUNEN 75. URTEURRENA

Doneztebe, 1998-IX-25

*Miguel San Miguel,
herriko alkatea*

- Jean Haritschelhar, euskaltzainburu jauna,
- Fernando Pérez de Viñaspre, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusi jauna,
- Agintariak,
- Euskaltzainak,
- Jaun-andreak.

Ongi etorriak izan zaitezte Doneztebera Malerreka, Baztan, Bortzerriak eta bertze hainbat lekutatik hurbildu zaretenok.

Orain dela 75 urte egin ziren hemen bertan Euskaltzaindiak antolatu zituen II. Euskalegunak. Doneztebek gogo eta asmo onez hartu zuen bilgune izatea, Malerreka, Baztan eta Bortzerrietako hainbat herrik parte hartuz, hiru egun iraun zuten Euskalegun haietan.

Gure eskualde honetan euskarak behar zuen bultzadaren abiapuntu izan ziren ospakizun haiek eta uste dugu erraten ahal dugula orduan ereindako ha-ziaren fruitu batzuk bederen biltzen ari garela, hondarreko urte hauetan batez ere. Baina horren guziaren berri hemen ditugun hiru hizlariak berehala emanen digute.

Eta orduan bezala, orain ere atsegin zaigu Euskaltzaindia bi egunez hemen izatea. Gaur goizean euskaltzain osoen hileroko bilkura izan da Udaletxean, arratsaldean Jagon Saileko III. Topaketak egin dira eta gaur arratsaldean hasiera eman zaien Ahoskerari buruzko IV. Jardunaldiek biharko egun osoa irau-
nen dute.

1923ko Euskalegun haiek akitu ondotik, Damaso Intza, Euskaltzaindiko idazkariak, idatzi zuen Euskaltzaindia eta Doneztebe esker oneko korapilo es-
tuan lotu zirela behin-betiko. 75. urteurrena ospatzeko asmoa azaldu zigute-
nean, pozez hartu genuen eskaintza eta atseginez erraten ahal dugu ez bakarrik
Intza jaunaren hitzek oraindik ere irauten dutela, baizik eta gure arteko korapilo
hori indarberritu eta sendotzeko aukera ematen digula.

Ziur gaude, Malerreka inguru honetan euskararen aurrerapena nabariagoa izanen dela hemendik aitzina, eta hori zuzenean egiaztatu ahal izateko eskatu nahi nioke Euskaltzaindiari ez uzteko pasatzen bertze 75 urte honat itzuli artio, gehienez ere 25 urte. Euskalegun haien mendeurrena eta, aldi berean, aurtengo jardunaldien zilar-ezteiak ospatzea parada on bat izan liteke. Gure gonbita luzatua uzten diogu, bada, Euskaltzaindiari.

EUSKALTZAINDIAREN II. EUSKALEGUNEN 75. URTEURRENA

Doneztebe, 1998-IX-25

*Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua*

Miguel San Miguel, Doneztebeko alkate jauna.
Fernando Perez de Vinaspre jauna.
Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia.
Euskaltzainkideak.
Jaun-andereak, agur.

Eskertu nahi zaitut, Doneztebeko alkate jauna, egin diguzun ongi etorri samurrarengatik, zure hitz goxoengatik.

Gaur bildu da Euskaltzaindia Doneztebeko Udaletxean, Hiztegi Batua zuela gai nagusia. Gero, arratsaldean, Jagon sailak azaldu du eta argitu Euskaltzaindiaren araugintza eta sartu gara Ahoskera jardunaldietan bihar eztabaidatuko direlarik Ahoskera batzordeko lan taldeak eskaintzen dituen emaitzak.

Donozteben biltzen balinbada Euskaltzaindia irail honetan da bereziki ospatu nahi dituelakotz, duela 75 urte hain zuzen, Donezteben apailatu zituen bigarren Euskal Egunak. Alabainan Euskaltzaindiak, orduan berrikitan jaioa, hartu zuen Euskal Egunen sortzeko erabakia, lehenak egin zirela Durangon, bigarrenak, 1923ko irailean, Donezteben.

Ene aitzinean daukat orduko egitaraua salatzen duelarik zer zen orduko giroa, nola jokatzin ziren euskararen sustengatzeko. Gure aitzineko horiek me-rezi dute gure errespetu eta ezagutza osoa.

75 urte iragan dira eta ikus dezakegu bertze garai batean bizi garelara. Euskara hizkuntza ofiziala da Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako eremu batean, hain zuzen Doneztebe dagoen eremuan. Euskara sartua da osoki eskolan, bereziki D ereduaren eta Doneztebeko haurrak dabilta euskara ikasiz, euskara landuz, euskara maitatuz. Nola ez ager gure poza ikusiz nola doan aurrera euskara Nafarroako erreinu zaharrean!

Aurten Euskaltzaindiak 80 urte betetzen ditu. Urteak dira, bainan beti gazte gelditzen da kide zendu bat ordezkatzin baitu kide gazte batek. Beti gazte, beraz, eta sekulan baino gehiago lotua lanari. Daude lekuko *Orotariko Euskal*

Hiztegia XI. liburukia agertuko delarik datorren abenduan, Euskara Batuko batzordearen lanak hilabetero eztabaidatuak direnak euskaltzain osoen bilkuran, Gramatika batzordearen emaitzak aztertu ditugunak Areatzako jardunaldietan joan den uztaillean, Euskal Herriko Atlasa-ri buruz egin diren inkestak gauzatuak direnak laster, lehen mapa liburukiarekin, Onomastika batzordearen eskaintzak toki izen (hiri, herri, auzo, mendi, ibai eta abar), jende deitura eta izen, nola erabili eta idatzi behar diren euskaraz, Literatura batzordeak antolatzen dituen biltzar eta jardunaldiak gure idazleen ohoretan eta, jadanik aipatu baitu, Ahoskera batzordearen ikerketak eta proposamenak. Batzordeetan egiten diren lanei esker Euskaltzaindiak oraiotzen du gure hizkuntza zaharra, euskara batua, eskainiz idazle, kazetari, erakasle, ikasle, hitz batez euskaldun eta euskaltzale guzietan, hizkuntza idatzia, XXI. mendeko hizkuntza, euskalki guzietan oinarritua, euskaldunen arteko lokarri sendoa.

Denek jakin bezate, eta oroitarazten dut gaur, lehenbiziko euskaltzainek amestu zutela idatz-euskararen sortzea, txosten bat galdeginenez Arturo Campion nafarrari eta Pierre Broussain lapurtarrari. Arantzazuko Biltzarretik honara gure belaunaldiak gogoan hartu du haien ametsa eta lanari lotu. Hor daude hogeita hamar urteren buruan (1968-1998) ezagun diren urratsak, euskara batuari urratu zaion bidea literaturan noski eta halaber komunikabide guzietan, ahantzi gabe erakaskuntza.

Euskaltzaindiak betetzen du osoki bere eginbidea eta lehen euskaltzainen xedea. Jadanik erran dudan bezala Doneztebek eskaini dizkigun baliabide guzietan lan ederra egin da gaur, egiten bihar. Euskaltzaindiaren esker onaren adierazteko eskaintzen dizut, alkate jauna, gure ohorezko medaila egun haue-tako oroitzapen gisa eta denbora berean zenbait liburu Doneztebeko Udalari, Institutuari eta Malerrekako Mankomunitate edo Erkidegoari.

Berriz ere bihotzetik milesker.

1923. URTEKO II. EUSKALEGUNEN OROIMENEZ

Doneztebe, 1998-IX-25

*Andres Iñigo,
euskaltzain urgazlea eta
Euskaltzaindiaren Nafarroako ordezkaria*

Euskaltzaindiak antolatutako II. Euskalegunak Donezteben egin zirenetik 75 urte hilabete honetan bertan bete dira, 1923ko irailaren 7an, 8an eta 9an izan baitziren.

ZER ZIREN EUSKALEGUNAK?

Lau urte lehenago, 1919an alegia, sortua izan zen Euskaltzaindia eta hasiera hartan hartutako erabakietako bat, bi urtetik behin eta eskualde desberdinetan, Euskalegunak ospatzekoa izan zen. Eta zein zen Euskalegunak antolatzearen helburua? Galtzen ari zen euskarari eustea eta, aldi berean, gure hizkuntza indarberritu eta hedatzea. Lehendabiziko Euskalegunak Durangon egin ziren 1921ean eta bigarrenak Donezteben 1923an.

ZERGATIK EGIN ZIREN DONEZTEBEN?

a) Alde batetik, Nafarroako Diputazioa euskarari bultzada ematea beharrezkoa zela ikusten ari zen. Hori zela eta, aitzineko urtean, 1922an, Etxarri-Aranatzen egin ziren Euskal Jaiak hain ongi atera zirela ikusirik, berehala onartu zuen Diputazioak Euskaltzaindiak hurrengo urtean Donezteben Euskalegunak egiteko luzatu zion eskaria. Eta ez onartu bakarrik, lagundu eta bertara etortzeko ere eginahalak egin baitzituzten diputatu batzuek. Eginahalak diot, hona etorri behar zuten egunerako, irailaren 9rako, antolatuak zirelako Iruñeko Burgoen elkartearen V. mendeurreneko ospakizun ofizialak. Azkenean, Iruñeko konpromizuei uko eginez, hemen izan ziren, Diputazioaren ordezkari gisa, Manuel Irujo diputatua eta Goñi idazkaria. Haiekin batera, Manuel Aranzadi, Madrilgo Gortean Nafarroako diputatua zena ere, azaldu zen (1).

(1) Ikus *El Pensamiento Navarro*, 1923ko irailaren 12koa.

b) Bertze aldetik, euskarari eutsi eta bultzada eman behar zitzaion herrietako bat Doneztebe zela argi ikusten da. Adierazgarriak dira egoera hori islatzen duten testigantza hauek:

1. Bidasoa inguruan, euskara atzerakadarik haundiena jasaten ari zen herri zat jotzen du Doneztebe garaiko prentsak eta, horregatik, pozgarri zela Euskalegunak egiteko hautatua izatea (2).

2. Euskaltzaindiak berak hemen egin zuen batzarrean hartutako erabakien artean bi hauek ageri dira: bata, Berako Eskolapioei eskatzea guttienez fraile euskaldun bat edo bi jar zitzatela ikastetxean eta elizkizunetan euskara erabili ahal izateko, eta bertzea, Doneztebeko Rosa Seminariok sortutako patronatopean funtzionatzen zuen nesken ikastetxean zeuden lau mojak erdaldunak zirenez, guttienez haietako biren ordezkari bi euskaldun jar zitzatela. Hau bera izan zen Azkue euskaltzainburuak azken eguneko ekintza publikoan Doneztebeko alkateari egin zion eskarietako bat.

3. Jardunaldi haietan emandako hitzaldietan ere, garaiko zenbait apezki eta emakumeri orokorrean zuzendutako salaketa sakonak egin zituzten bospasei hizlarik. Adibide gisa, Eguskiza eta Bitorio Apeztegiak apezki buruz diotena aipatuko dut. Euskara bizi bada, batez ere apezki esker izan dela argi utzi ondotik, salaketa gogorra egin zuten erranez, hala ere, badirela apez batzuk "aundi-putz, arro... erdal-itz asko, andikeriz, arrokeriz sartzen dituztenak" (3), edo "eliz-itzaldietan erdi euskaraz erdi erdaraz bi izkuntzak nagasten dituztenak porru salda bat balitz bezala" (4). Eta Eguskizak emakumeei buruz zioena hau da: "Gaur egunean ere euskaldun askok, batez ere andere ta neskatxak euskara utzi eta erdera parra-parra erabili ezker, aundizki usaya artzen dutela uste

(2) 1923ko irailaren 11ko *El Pensamiento Navarroren* lehenengo orrialdean, POR EL EUSKERA titulupeko Editorialak honela dio: "Estos días viene celebrándose en la linda villa de Santesteban los actos de cultura y propaganda que anualmente celebra la Academia en diversos puntos del país vasco. [...] Sin perjuicio de tratar este asunto más adelante, y de señalar la conveniencia, mejor dicho, la urgencia de que se celebren en otros puntos de Navarra, amenazados por la desaparición del Euskera, actos análogos y si es posible más importantes todavía, debemos consignar la satisfacción que nos ha producido el que este año se haya elegido Santesteban como punto de ataque en el camino de renacimiento de nuestra lengua, porque era el que más flaqueaba de toda la comarca del Bidasoa [...] Hacía falta en Santesteban una inyección de euskalismo porque se notaba desde hacía ya algunos años un decaimiento grande en el uso del euskera que algunas gentes parecía que tenían a gala el no usarlo. Pero por lo visto han reaccionado, y prueba de ello viene siendo la distinguida concurrencia que se observa en todos los actos que se celebran. ¡Muy bien por los doneztebarras! Pero que el entusiasmo de estos días no sea como el rocío de las eras. Para ello es necesario que se traduzca en hechos, y ninguno más persuasivo que el ejemplo: el uso dentro de las familias, en las relaciones sociales, en una palabra, en todas cuantas partes sea posible [...] Nosotros como tradicionalistas, necesariamente tenemos que ver con la más viva complacencia fiestas como las de Santesteban, pues ellas contribuyen a restaurar una de las tradiciones más hondamente nuestras, la de nuestra expresión de nuestra alma".

(3) Eguskiza, *Bigarren Euskalegunetako Itzaldiak Doneztebe-n*, Gaubeka inprimategia, Bermeo, 11-12. orr.

(4) Apeztegia, B., *Ibid.* 50. orr.

dute: ori egin ezkeru, bertzerik gabe aberats eta aundizkien alabak dirala beren buruetan sartzen zaye, ta amaren magalean ikasi zuten euskara, gauza lotsagarria bai litzan, nioz ez dute erabili nai; euskaraz mintzatu ezkeru, beren ezpañak zikinduko ote-zitzaizkien beldur bide dira. Arrokeri zoro onek euskarari kalte andia egiten diola gere begiz dakusgu” (5).

II. EUSKALEGUNETAKO EDUKIAK

Hiru motatako ekintzak antolatu zituzten:

a) Alde batetik, ekintza akademikoak.

Euskaltzainek udaletxean bi bilera egiteaz gain, hamalaren bat hitzaldi ere eman ziren areto honetan. Ez ditut denak aipatuko; bai, ordea, eskualde honekin zerikusi zuten gaiak edo parte hartu zuten bertako hizlariak.

— *Erranera*k titulupeko hitzaldian, Pablo Fermin Irigarai, Larrekok, 150 erranera inguru azaldu zituen.

— Cruz Goienetxe, Amaiurko erretorea zenak, *Martin Azpilkuetaren* bizitzaren ekarpen zehatza aurkeztu zuen.

— *Agoteak Naparroan* gaiari buruz hitz egin zuen Jose Zalbak.

— Bitorio Apeztegia, garai hartan oraindik apezgai zen amaiurtarrak, euskararen aldeko hitzalditxo sutsu bat eman zuen.

— Joakin Azpiatzuk *Euskera zarraren apurtxoak* titulutzat zeraman hitzaldian, historian zehar euskararen aldeko ekarpenak egin dituzten hainbat pertsonaren artean XVIII. mendeko Anjel Bizente Zabaleta, leitzarraren bizitzaren laburpen bat azaldu zuen.

— *Lakoizketa apez jauna eta Euskera* izan zen Aingeru Irigaraien gaia. “Lakoizketa zenaren ooretan zerbait egin bear giñuke” erranez eman zion amaiera hitzaldiari. Hurrengo urtean, oroigarri gisa, plaka bat jarri zitzaion bere sortetxeari, Narbarteko Lakoizketa baserriari alegia, eta Euskaltzaindiaren ordezkari bat bertan egon zen. Honela dio plakaren testuak: “*Lakoizketatar Jose M.^a / apez zenari / 1831ko otsailaren 2an 1889ko abenduaren 25ean / etxe ontako seme zen / Lakoizketa jauna landare jakintzan euskaldun nagusia / euskaldunak zor diogun aipamenaz jasotako oroitarria / 1924n urtean*”. Hala ere, inguru honetako zientzilaria ospetsu honekin (ospetsuena izan ez bada) oraindik ere zorretan gaudela dirudi. Eduardo Gil Berak, *Lakoizketaren Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con otros*

(5) Eguskiza, ibid. 12. orr.

vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos, 1994an berrargitaratu zenaren prestatzaileak behintzat hala dio liburuaren hitzaurrean (6).

b) Ekintza akademiko eta hitzaldietatik aparte, Malerreka, Baztan eta Bortzerrietako 17 herritako 7 eta 14 urte tarteko mutiko eta neskatokoei, Euskalegunak hasi baino egun batzuk lehentxoago, azterketak jarri zitzaizkien euskaraz irakurtzen eta idazten ematen zuten maila ikusteko. Hoberenak sarituak izan ziren eta hona deituak sariak hartzera. Parte hartu zuten herriak hurrengo hauek izan ziren:

— Bortzerrietako bortzak.

— Malerrekatik: Doneztebe, Legasa, Narbarte, Oieregi, Donamaria, Elgorriaga eta Sunbilla.

— Baztandik: Oronoz, Arraioz, Irurita, Lekaroz eta Gartzain.

Erran beharra dago, Damaso Intza eta aipatu ditudan herrietako apezak, hilabete batzuz lehenago, gogor aritu zirela neska-mutikoak prestatzen.

Tolosa eta Donostiako euskal ikastetxeetan ikasten ari ziren neska-mutikoei ere azterketa publikoak egin zitzaizkien areto honetan.

c) Horietaz gain, Lau Herrietako eta Legasako umeek abesti emanaldiak egin zituzten hitzaldi tarteetan. Narbartearek jai haietarako espreski erreku-peratu omen zituzten jendeak ahaztuak zituen kantu batzuk, eta sunbildarrek eman omen zuten mailarik altuena, bi eta hiru aldiz ere errepikarazi baitzitzaizkieten kantu atsegingarri batzuk.

Gainerako ekintzak, Errenteriako antzerki eskolakoen teatro emanaldia, Leitza eta Urrozko bertsolarienak, Bertizarana eta Baztandarren arteko *Laxoa* partida, eta Elizondo eta Doneztebeko dantzarien emanaldiak izan ziren. Aipatzekoa da Azkuek berak Doneztebeko dantzei buruz dioena. Euskalegunak antolatuzera etorri zen lehenengo aldian, hemengo Anastasio ttuntuneroari galdetu omen zion ea bazen herrian dantza bereziren bat, eta Anastasiok erantzun omen zion “baziren, orain ordea illak dire”. Azkuek, berriz, “jo itzazu, otoi”. Anastasiok jo ahala, Azkuek paperean idatzi eta ondoren alkateari eskatu zion eginahalak egin zitzaizkien dantza haiei biziberria emateko. Euskalegunen amaieran, alkateak hasiera emanez, dantzatu zituzten *Dantzaluzea* eta *Trapatan*.

ERAGIN SOZIALA

Alkateak arestian erran bezala, Doneztebek gogo eta asmo onez hartu zuen Euskaltzaindiaren proposamena, eta Damaso Intzak aktetan aipatzen du herri

(6) “Ese ser veleidoso que es —y ahora somos— la posterioridad tampoco se ha portado con justicia con José María Lakoizketa, el botánico de Narbarte”, op. cit. 3. orr.

honek erraztasun osoak eman zizkiela Euskalegunak antolatzeke. Inguruko herrien erantzuna eta partaidetza ere paregabeak izan zirela aipatu dut.

Garaiko prentsak, alde batetik, partaidetza hau azpimarratu zuen (7). Aldi berean, prentsak berak —*El Pensamiento Navarro*ok, alegia, *Diario de Navarra* ez baitzuen baloraziorik gabeko aipamen pare bat bertzerik idatzi— nahi adina leku ezin ematearen pena adierazi zuen (8), eta bai Euskaltzaindiari baita Doneztebeko udalari ere zorionak eman zizkien (9).

ONDORIOAK ETA GERORAKO ASMOAK

Azkuek, azken hitzaldian, bi gauza eskatu zizkien alkateari eta herritar guziei:

1. Trapatan dantza galtzen ez uzteko, hurrengo urteetan segida emateko. Baina berehala bota zien garrantzitsuago zen bigarren eskaria.

2. Doneztebearren euskalduntasuna ez zedila dantzara, txistura eta ttuntunera mugatua geld. Hizkuntza, euskara, salbatzen eta indartzen egin behar zituztela eginahalik haundienak. Hasieran erran dut nesken eskolan euskara zekiten mojak jartzeko eskatu ziela eta, horretaz gain, mutikoen eskolan ere, beranduegi izan gabe, alfabetizazioaren alde zerbait egin zezatela erregutu zien. Donezteben pauso hori ematen bazen, inguruko bertze zenbait herritan ere, Beran, Lesakan eta Elizondon erraterako, bertze hainbertze eginen zutela espero zuen Azkue jaunak.

75 urte geroago, bai Doneztebek bai inguruko herriek, irakaskuntzan eta gainerako arloetan ere, eman duten aurrerapausoa seguraski Azkuek eskatutakoa baino haundixeagoa izan da. Dena den, emandako aurrerapauso hori, gauregungo gizartearen beharrak betetzeko nahikoa ote den izanen da, nik uste, hemen gauden guziori burura datorkigun galdera. Maria Jesus Perurena eta Periko Míndegia izanen dira horren berri berehalaxe emanen digutenak.

(7) Jaiak hasi baino egun batzuk lehenago honela zioen: "Por las impresiones que se reciben de toda aquella pintoresca comarca, ha tenido una acogida entusiasta la idea de la Academia". Eta akitu ondotik, berriz, [estas fiestas] "han superado todos los optimismos que augurábamos en las impresiones de que nos hacíamos eco en la nota publicada en la prensa días antes de estas fiestas [...] según aseguraban todas las personas mayores de la villa, no recordaban fiestas de ninguna clase en que la concurrencia de forasteros haya sido tan extraordinaria como estos días". *El Pensamiento Navarro*, 1923ko irailaren 2koa.

(8) "Hubiéramos deseado darle en nuestras columnas toda la importancia y realce que merecen, pero el escaso espacio de que disponemos nos impide con hondo sentimiento el hacerlo", *El Pensamiento Navarro*, 1923ko irailaren 11koa.

(9) "Reciba nuestra más cordial enhorabuena la merítisima Academia por los actos que con tanto éxito viene celebrando estos días en la bella población bidasotarra y las autoridades de la misma por la entusiasta cooperación que les ha prestado y por el cariñoso recibimiento con que ha recibido a los dignos miembros de esta docta Academia", *El Pensamiento Navarro*, 1923ko irailaren 16koa.

EUSKARA IRAKASKUNTZAN AZKEN 23 URTEOTAN DONEZTEBE ETA MALERREKAN

Doneztebe, 1998-IX-25

*Maria Jesus Perurena Santesteban,
Doneztebeko DBH Institutuko irakasle
eta udal zinegotzia*

Andres Iñigo 1923az mintzatu zaigu, eta ordurarteko denboraz.

Garai hartako komunikabideetan agertzen zen euskararen atzerakadaren kezka, horixe izan zelarik 23ko Euskalegunak Donezteben ospatzearen arrazoa edo arrazoi bat behinik bebin.

Nik azken 23 urteok hartu behar ditut kontuan, hau da, "Donezteben irakaskuntza euskaraz hasi zen urtetik gaur arte".

Hala ere, hor gelditzen da 50 urte pasatako tartea.

Zer gertatu ote zen deboran horretan?

Tarte horretan izan zen nire eskolatzea, eta badauzkat zenbait oroitzapen nire buruan. 23a bitartean atzerakadaren kezka baldin bazegoen, hortik aintzina ez zen egoera hobetu.

Euskara, etxe xokoan funtzionatzeko baliagarria zen zerbait zen; handik kanpo ez zeukan inolako prestigio sozialik: Belateraino joateko bakarrik balio du, erratan zen.

Guzti hau horrela izanik...

1975. urtean Doneztebeko kontzentrazioak urte bat zeraman martxan, eta eskolarik gabe gelditu ziren inguruko zenbait herritako umetxoak kontuan hartuz, Nafarroako Diputazioak, Escuela de Temporada bilingüe bat ideki zuen, aipatu ditudan herri horietako 4 eta 5 urtetako neska-mutikoak ere eskolatuak izan zitezten.

Eta nik izan nuen gela horretako 1. irakaslea izateko zortea eta, ez hori bakarrik, euskal adarra hartu zuen lehendabiziko promozioarekin (25en bat) egin bainuen ia-ia OHO osoa, 3. mailatik 8.era horren ondotik OHOn zuzendari bezala eman nituen 3 urtek eta azkeneko 3 urteotan DBHko zuzendari izateak aukera ezin hobea eman dit euskeraren ibilpidearen lekuko hurbila izateko 23

urteotan, eta hori ikuspegi desberdinetatik: irakasle bezala, zuzendari bezala eta guraso bezala ere bai, nere seme gaztena bigarren promozioikidea izan baitzen.

Gela elebidun horren hasiera kontatuko dut:

Zenbait urte lehenagotik Donezteben bazen eskolaurrea (erderaz), eta kurtsu hartan, 75ean 4 eta 5 urtetako 53 haur zeuden matrikulaturik.

Irekitzeko zegoen gela elebidun hartarako, berriz, 28 haur zeuden guztira eskolak itxi zituzten herrien artean.

Bi eskolurreko gela haien arteko matrikulen desoreka haundia zen, eta kontzentrazioko zuzendariak nolabaiteko oreka aurkitu nahiean. Doneztebeko gurasoak deitu zituen eskaera konkretu bat egiteko, eta hauxe izan zen: Hamar haur euskaldun eskatzen zituen gela elebidunera pasatzeko.

Hamar baino gehiago ziren guraso euskaldunak eta etxean euskaraz egiten zuten haurrak urte hartan hasten zirenean artean, baina bat bakarra izan zen pasatzeko borondatea agertu zuena.

Erantzun honen arrazoiak bazeuden, nire ustez ZEIN?

Ba, bertze batzuren artean...

— Lehen erran bezala. Euskarak ez zeukan inolako prestigio sozialik (erdaraz egitea zen dizdira ematen zuena...).

— Donezteben ez zegoen euskaraz eskolatzearen esperientziarik.

— Guraso batek baino gehiagok edo hurbilekoren batek esperientzi txar aunitz bizi izanak zituzten euskaraz erdaraz baino gehiago zekitelako, eta ez zuten horrelakorik nahi heren seme-alabendako.

Erran beharrik ez derrigorrez pasatzea izan zutela, ez baitzaiteken lanik egin bertzela 53ko taldearekin.

Horrelakoxea izan zen euskarazko irakaskuntzaren hasiera Doneztebe eta Malerrekan.

Hiru kurtsoz gela horrek bakarrik funtzionatu zuen eta oraintxe hogeitau urte, 78/79an jarri zen martxan OHoko 1. maila (bitartean 2 promoziotako haurrak erderazko EGBra pasatu ziren).

Eta geroztik euskaraz eskolatutako 10 promozio atera dira! (Hezkuntza Sistemaren aldaketaren ondorioz 2 urtetan ez baita talderik irten):

Urteak pasahala, gela bakar hori progresiboki haunditzen joan zen, gela bat izatetik bi izatera pasatuz eta azkeneko 5 urteak hartzen baditugu erreferentzi bezala. Donezteben matrikulatutako 129 haurretatik 123 euskaraz izan dira eta 6 erdaraz.

Aurtengo ikasturtea hartuz amaieratzat, erran behar da matrikula osoa, 1 ezik, euskaraz, egin dela Haur Eskolan: zehazki, 23 etatik 22.

Doneztebeko Eskolan 3 urterekin matrikulatzerakoan egiten dute ereduaren aukera eta eskolatze prozesu osoa kontutan hartuz, kontatuak dira hizkuntza aldaketa eskatzen dutenak.

Denok badakigu gauzak ez direla hain ximpleak izaten, tartean aunitz oztopo gainditu behar izan dira eta zenbait egoera ilun eta lainotsu samarrak jasan ere bai.

Gaur Doneztebeko eskolak batera hartuz, hau da, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntza, 466ko matrikulatik, 413 Euskal ereduaren daude eta 53 gaztelera ereduaren.

Parean jartzen haditugu 23 urte hauetako 1.a eta azkena ikus dezakegu piramidearen itzilipurdia:

— 75.ean ia 600 haurretatik 4 eta 5 urtetako 40 inguru zeuden gela elebidunean

— Gaur, 98an 466 haurretatik, 3, 4 eta 5eko 3 haur daude erdal ereduaren.

Orain dela 23 urte arrazoiak baldin bazituzten euskaraz eskolatzea ez hain errez omartzeko, orain ere badaude arrazoiak, nola ez, egiten duten aukera egiteko.

— Egiatzatua dago euskaraz eskolatzea ere posible dela eta gainera ongi.

— Euskaraz eskolatzea da aposturik onena (euskaraz eskolatuak hainbat erdara ikasteaz gain, euskera ikasten baitute).

— Gaurko egunean badauka pretigio soziala eta naturaltasunez hartua izaten hasten da: erdal adarreko ikasleen guraso batzuk, adibidez, beren umeak, euskarazko taldetan sartuz aukeragai batzuk euskaraz egin ahal izatea eskatu dute inolako problemarik gabe.

Horrelako jarrerak laguntzen dute euskararen normalizazioan ikastetxeko esparruan...

... zeren euskararen normalizazio osoaz eta zabalaz aritzeko... administrazioarekin eta bertze zenbait esparrurekin sartu beharko litzateke, eta hau gaurko nere gaiatik kanpo gelditzen da...

EUSKARAREN EGOERA BAZTAN, BORTZERRI ETA MALERREKAN

Doneztebe, 1998-IX-25

*Pedro Mindegia,
Malerrekako Euskara batzordeburua*

Malerreka eta Bidasoa erreka honetako bertze eskualdeak ere, Bortzerri eta Baztanaldea, eskualde eskualdunak izan dira betetik. Eskuarak sortu ditu haien herriak, errekek, mendiak, parajeak, etxeak baita etxe horietako biztanleak ere, errateko izen eta hitzak. Hemen eskuarak bertze edonon tokiko hizkuntzak egin duena egin du mendeen joanean: gizatalde oso baten bizitza eta bizi-aukerak senetz bete. Eskuara hemengo gizon-emakumeen bizitza esperientziaren haria zen, lokarria. Bertze edonongo gizataldea bezala bizi ziren hemengo eskualdunak beraien herrian, beraien hizkuntzaz, nahiz eta afera jakin batzuetarako bertze hizkuntza arrotz bat ibili behar. Joan den mendea artio zen ohikoa.

Baina gaur egun egoera bertzelakoa da. Joan den mendetik hasi zen gure herririk handienetan (Donezteben, Beran, Lesakan, Elizondon eta Iruritan) egoera hori aldatzen eta eskuara, poliki-poliki, hasi zen bere-bereak zituen funtzioak galtzen: Estatuaren politika (ez bakarrik elebakarra, baizik eta bertze hizkuntza ttipiendako erasotzailea ere dena) ezarri zuten eskoletan, administrazioan, karrketan eta desberdintasunaren diskurtsoa (hizkuntza eta hiztunen artean desberdintasuna sortu eta legitimatu egiten duena) hedatu zen.

Diskurtso oker hori dago indarrean, gaur egun ere, gure herrietan, bai eta Euskal Herri osoan ere. Diskurtso horren kontra jo behar dugu lehenik gure hizkuntzarendako normaltasuna sortu nahi badugu.

Hori bertzerik ez da gure egoera, diskurtso berri bat hedatzen saiatzen gara: herrien arteko berdintasunaren diskurtsoa. Diskurtso honek Euskal Nazioaren autopertzepzio kultural egokia ahalbidetuko du. Eskualduna izatea gizon-emakumea izateko modu bat da, eta Eskual Herria —eskuaraz mintzatzen den Herria— munduan diren bertze herrien batera gizadiaren funtza eta aniztasunaren partaidea da. Berdintasunaren etika honetatik bakarrik ulertu eta baloratzen ahal da eskualdunon berezitasuna, giza mintzaireren artean gure eskuarak duen lekua.

Baina egoera da oraindik normaltasun-berdintasun horretatik urrun gaudela. Bertzenaz, nola ulertu aunitz zerbitzu oinarritzotan (mediku-erizainek;

Estatu, Foru eta Udal administrazioetako langileek ematen dituzten batzuetan) euskaldunak ezin hartuak izatea haien hizkuntzaz, eta erdaraz izan behar? Nola ulertu, adibidez, eskualde honetako medikuen artean, gehienek zerbitzua eskuaraz ezin eman izatea?

Nola ulertu, oraindik eskualde honetan eskuaraz ikasi nahi duten ikasleek beren ikaste prozesua ez edukitzea ziurtatuta eskuaraz, baina gaztelaniaz ikasi nahi dutenek, berriz, bai? Nola ulertu heziketa ziklo berrietan eskuaraz ikastea ezinezkoa izatea? Nola ulertu Berako Labiaga Ikastolako DBH legezstatugabe egotea?

Nola ulertu, Udal Euskaldunen Mankomunitatean sartuta dauden udaleei Estatu eta Foru Administrazioek traba baizik ez paratzea administratiboki eskuaraz funtzionatu nahi dutelako, eta gaztelania hutsean aritzen diren udalek inolako arazorik ez izatea, ez eta herritar eskualdunen hizkuntza eskubideak begiratzeko premiarik ere?

Nola ulertu hainbertze urte bertako berriak zabaltzen emanda, duela zenbait aste bakarrik Xorroxin Irratiak lizentzia lortu izana (Nafarroa osoan bakarra)? Urtez eta urtez aritu da alegaldade-ilegalidade osoan, Foru Administrazioak erdara hutsezko bertze irrati batzuei emititzeko lizentzia segidan ematen ziela ikusiz.

Nola ulertu gure euskaldeen dugun eskualdun zahar alfabetatugabe pila hori, beraien hizkuntzaz kulturizatu eta horren pertzepzio egoki eta landua izateko aukera izan ez dutenak, eta ikasi duten guti-askoa, nahitaez gaztelaniaz ikasi behar izan dutenak. Gure herritar aunitzi, dagoeneko gazte gazteak ez diren horiei, ukatu egin zaie eskualdun osoak izatea, desberdintasunaren diskurtso maltzur hori sartu diete buruan, eta aunitzek sinistu dute. Aunitz eskualdunek uste du eskuararen egoera naturala dela, eskuara berez gaztelera, frantsesa edo bertze edozein erdara baino guttiago dela, ez deus dela, mundu honetan eskualdun izatea deus ez izatea dela. Desberdintasunaren konplexua sartua dute.

Desberdintasuna garbia da, begi bistan dugu egunero, nonahi. Baina jakiñ badakigu desberdintasun hori ez dela naturala, ez dela berez eskuarari eta eskualdunoi dagokiguna. Eskualdun aunitz aritzen gara gure hizkuntzaren alde lanean, administrazioak ere neurriak hartzen hasiak dira. Aunitzetan, gure gogoz bertzera, urrats bat aitzin eta bi gibel egiten ditugu, baina guk garbi dugu gure nahiaren eta lanaren zulentasuna.